



EUSKARALDIA

Bilboko *Euskaraldia*
Bilbon, 2018ko maiatzaren 11an



Euskaraldia Bilbon

Aurkibidea

1.- Sarrera

2.- Zer da *Euskaraldia*?

3.- *Euskaraldia* Bilbon

4.- Antolaketa

4.1.- Sustatzaileak

4.2.- Talde eragilea

4.3.- Auzoetako lantaldea

4.4.- Sektoreetako lantaldea

4.5.- Komunikazioa

4.6.- Finantzazioa

4.7.- Dinamizatzaileak

5.- *Euskaraldia* non

5.1.- Auzoak

5.2.- Sektoreak

5.3.- Bilbo mailakoak

6.- Nola antolatuko dugu? (kronograma)

7.- Jarduerak

8.- Aurrekontua



1.- Sarrera

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo da *Euskaraldia* Euskal Herri osoan batera. Ofizialki 2017ko azaroaren 23an aurkeztu bada ere, maiatzean aurreratu zen Udaltop jardunaldian asmoa.

Maiatzean Udaltop-en lehen proposamena aurkeztu zenerako, Bilbon lan-talde bat lanean hasita zegoen hizkuntza ohituretan eragiteko aktibazio ekimen bat antolatzeko ideiarekin. Lan-talde hortan Bilboko zenbait euskaltzale biltzen hasi ziren. 2018rko proposamena aurkeztutakoan, lan-taldeak Bilboko ekimena Euskal Herri osokoarekin batera lantzea erabaki zuen.

Lan-taldeak biltzen jarraitu du hilabete guzti hauetan eta proposamena lantzen jarraitu du: mugarrak, kronograma, antolaketa eredia eta beste landu dira. Tarte honetan Bilboko euskalgintzako eragileekin eta hainbat euskaltzalerekin zenbait bilera egin dira, baita hiru aurkezpen orokor ere.

Urriaren 30ean aurkezpen zabala antolatu zen eta 40 bat euskaltzalek parte hartu zuten. Aurkezpen horren ondoren, hiru lan talde eratu eta martxan jarri dira, koordinazio gunearekin batera. Egun beraz, auzoen lan-talde bat martxan ari da Bilboko zazpi auzotako ordezkariekin (era berean, auzo guzti horietan lantalde bana dago *Euskaraldia* prestatzen), sektoretako lantalde bat ere badago zenbait sektoretako ordezkariekin lanean (hezkuntza, euskaltegiak, konpartsak eta beste) eta komunikazio lantaldea ere lanean ari da.

Euskaraldiaren prestaketa lanekin beraz hasita dago Bilboko gizarte mugimenduko sare bat eta are gehiago zabaltzeko erronka du gainera.

Euskaraldiaren antolaketa orokorrarekin bat eginez, hasieratik landu nahi izan da Bilboko udalarekin harremana, *Euskaraldian* udala ere inplikatu eta elkarlan eremu bat sortzeko helburuarekin.

2.- Zer da *Euskaraldia*?

Euskaltzaleak, herritar euskaldunak eta era guztietako erakunde eta entitateak aktibatzea xede duen ekimena da *Euskaraldia*, euskaraz bizitzeko urratsak eman ditzaten, bakoitza dagoen puntutik (duen gaitasunetik, egiten duenetik...) abiatuta.

Erabileran eragiteko ekimena da *Euskaraldia* eta 2018 urtean hiztunen ohitura aldaketak izango ditu xede, inertziak apurtuz, euskarazko hizkuntza praktika berriak bultzatzeko.

Ariketa soziala izango da *Euskaraldia*, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra gauzatuko dena, Euskal Herri osoan, batera. 2016tik aurrera hainbat herritan egin diren aktibazio



ekimenetan du oinarria *Euskaraldiak*, baina oraingoan Euskal Herri osoan batera egin nahi da, eragina areagotzeko helburuarekin.

Hamaika egunetan 16 urtetik gorako herritarrei *ahobizi* eta *belarriprest* modura jarduteko gonbitea egingo zaie, beren egunerokoan euskarazko praktikak izan ditzaten euskara ulertzeko gai diren herritar guztiekin. Honakoa da parte hartzaile bakoitzari egingo zaion proposamena:

- **Ahobizi** denak euskaraz egingo die euskara ulertzeko gai diren guztiei. Ezezagun guztiei lehen hitzak euskaraz egin eta ulertzeko gai diren guztiekin euskarari eustea da ahobiziei egiten zaien proposamena. *Ahobizi* identifikazio txapa izango du.
- **Belarriprest** denak dakienari berarekin euskaraz aritzeko gonbitea egingo dio, berak euskaraz zein erdaraz erantzun arren (*belarriprestaren* gaitasunaren arabera). Identifikazio txapa izango du *ahobiziek belarriprest* dela jakin dezaten.

Parte hartzeko izen-ematea zabalduko da eta ekimenak dirauen artean identifikaziorako txapa baliatuko dute parte hartzaile guztiek (batzuek *ahobizi* txapa eta besteek *belarriprest* txapa).

Ariketak 11 eguneko iraupena izango duen arren, *Euskaraldiaren* prestaketa lana aurreko hilabeteetan gauzatuko da. Aurrez garrantzitsua izango da hedapenean lagunduko duten boluntarioak bilatu, sektoreka (merkataritza, hezkuntza, aisialdia, kirola,...) lanketa propioak egin eta *ahobizi* zein *belarriprest* izango diren laguntzako prestakuntza ondo lantzea, 11 egunetan beren jarrerari eusteko baliabideak emateko.

Ekimena Euskal Herri osoan egingo den arren, tokian tokiko euskaltzaleak izango dira herri/hiri/auzo bakoitzeko dinamikaren sustatzaileak eta inguru soziolinguistiko bakoitzaren errealitatera moldatzeko ardura izango dute sustatzaile horiek.

Euskaraldia: 11 egun euskaraz ekimena bi planotan garatuko da beraz; Euskal Herri mailakoa eta tokian tokikoa. Horietako bakoitzean urrats antzekoak irudikatu arren (pertsonak aktibatzea, batetik, eta era guztietako entitateen urratsak bultzatzea, bestetik), lan dinamikak ezberdinak izango dira. Euskal Herri mailako koordinaziotik baliabideak eskainiko dira (komunikatiboak, formatiboak,...) herrietako lana ahalik eta erraztasun handienekin egiteko eta hortaz gain, tokian-tokiko eremua gainditzen duten erakunde eta entitateekin (enpresak, kirol federazio eta klub handiak, kultur eragileak,...) lan egingo da erakundeotan *Euskaraldia* martxan jartzeko. Herriz herri, bertako errealitatera egokitu eta herritarrak zein bertoko entitateak (erakundeak, enpresak, taldeak, elkarteak,...) *Euskaraldian* parte hartzeko gonbidatuko dituzte tokiko sustatzaileek.



3.- *Euskaraldia* Bilbon

Bilbok, Euskal Herriko hiri populatuena, ezaugarri eta baldintzak ditu *Euskaraldia* martxan jartzeko aukera ematen dutenak, baina baita ere *Euskaraldia* egokitzeko beharra sortzen dutenak.

Batetik, aurkezpenean azaldu dugun moduan, gizarte mugimendu antolatu bat dago, euskararen erabileran urrats berriak emateko prest, lehenago Donostiako Egia auzoan, Lasarte-Orian, Agurainen, Hernanin, Arrigorriagan edo Igorren moduan, hizkuntza-ohituratan eragin eta euskaldunok aktibatzeke ekimena martxan jartzea erabakia duena. *Euskaraldiarekin* bat eginez aurtengo azaroan eta abenduan egin nahi genuke.

Bestetik, ezagutza aldetik duela hamarkada batzuk baino datu askoz hobeak dituen hiria da Bilbo, eta aukera ematen du horrelako ariketa sozial bat martxan jartzeko. Bilbo gainera hirigunea izanik, eragin ahalmen handia duen hiria da, eta erreferentzialtasuna lantze aldera, garrantzitsua da Euskal Herri osoan egingo den ariketa honetan parte izatea ere.

Hiri handia da Bilbo, auzo ugari eta gizarte bizitza aberatsa duena. Horrelako ekimen batek hiri osoa bustitzeko dituen zailtasunak handiak izanik, ahalik eta auzo eta sektore gehienetara heltzea izango litzateke sustatzaileon asmoa, baina aurrez jakinik, prozesu hau hazkorra (progresiboa) izan behar dela eta urratsez urrats hedatzen joan beharra dagoela.

Azkenik, gizarte mugimendu eta egitura instituzional zabala izan arren, orain arte batera martxan jarritako egitasmo gutxi daude Bilbon. *Euskaraldia*, antolatzeko proposatu den moduagatik eta Euskal Herri mailako koordinazioa osatzeko baliatu den ereduagatik, aukera paregabea da euskalgintzaren trinkotzean eta erakunde eta gizarte eragileen arteko zubiak eraikitzean ekarpena egiteko tresna interesgarria iruditzen zaigu.

Beraz, laburbilduz, Bilbon *Euskaraldiaren* ezaugarriak ondokoak izatea proposatzen dugu:

- Euskal Herri osoan moduan, 2018ko azaroaren 23a eta abenduaren 3aren artean, 11 egun euskaraz ekimena izango du ardatz
- Antolaketari dagokionez, auzoz-auzo eta sektorez-sektore zabalduko da bere eragina
- Bilbo osora (auzo guztietara eta sektore guztietara) heltzeko bokazioa izan arren, hedapen progresiboa izango du, auzoetan eta sektoreetan dauden aukeren eta eragileen arabera
- Sustatzaile sare zabalean euskaltzaleak eta eragile sozialek parte hartuko dute, udalaren eta sektore ezberdinetako eragileen parte hartzearekin (horrela erabakitzen badute)



4.- Antolaketa

Aktibazio ekimen bat martxan jartzeko lehen urratsak eman zirenetik, borondatez bildu diren euskaltzaleek osatutako lantalde batek gidatu du prozesua. Talde hau ez da elkarte edo erakunde zehatz bati lotuta egon orain arte, ez du aurrez dagoen elkarte baten babesean egin bidea. Aurrerantzean ere, koordinazio mahaia euskalgintza edo beste gizarte eragile batzuetan parte hartzen duten pertsonak osatzea proposatzen da, ekimen honen bueltan bildutako jendea biltzeko gunea izatea. Koordinazio mahai hori irekia dago gainera, parte hartu nahi duen bestelako pertsoneri ere. Hala ere, ekimenari lotutako kontratazioak egin eta bestelako egiturazko beharretarako, **Jalgi Fundazioak** hartuko du Bilboko *Euskaraldiari* egitura juridikoa emateko ardura.

Urriaren 30eko mintegitik aurrera beste hiru batzorde osatu dira eta jadanik lanean ari dira. Ondoko lerroetan azalduko dugu *Euskaraldiaren* antolaketarako zein lantalde sortuta dauden eta zeintzuk dira aurreikusten ditugunak.

4.1.- Sustatzaileak

Euskal Herri mailan aurkeztutako *Euskaraldiak* izan duen ezaugarrietako bat izan da erakunde eta gizarte eragileen arteko elkarlana. *Euskaraldia* erakunde bakarraren egitasmoa izan beharrean, askoren artean antolatu eta zabalduko ekimena izatea proposatu da. Gaur egun 30 erakundetatik gora ari dira Euskal Herriko *Euskaraldia* sustatzen (tartean daude erakunde publikoak, gizarte eragileak, euskalgintzako entitateak eta baita euskalgintzaz kanpoko bestelako erakundeak ere).

Bilbon ere antzeko proposamena egin dugu hasieratik: askotariko elkarte, erakunde eta euskaltzale norbanakoen bilgune izatea *Euskaraldia*. Eta noski, Bilbon ere, udala gizarte eragileekin batera aritzea nahi genuke, aktibatuta dagoen euskaltzale talde hori babestu eta elkarlanean aritzea.

Gaur egun, lantalde ezberdinetan ari gara Bilboko euskaltegietako, euskara elkarteetako, hezkuntzari lotutako erakundeetako, kultur munduko elkarteetako eta bestelako entitateetako kideak.

Horrelako egitasmo bat gizarte eragileen eskutik egiteak badu indarra, gizartea aktibatze gaitasuna baitute urtetan lanean ari diren eragileok. Baina administrazioak ere badu ahalmena eta ardura eragiteko eta gizarteko beste sektore batzuetara heltzeko.

Udalari beraz, hiru mailatako babesa ematea proposatzen diogu:

Ekonomikoa: Bilbo moduko hiri batean horrelako egitasmo bat martxan jartzeak baditu zailtasunak. Hainbat auzo, hainbat sektore eta egitura konplikatuak duen hiri batek eskatzen du bai komunikazioan zein koordinazioan ahalegin handi bat. Administrazio publikoak badu ahalmena horrelako erronka bati ekonomikoki babesa emateko.

Erakundearen babesa: Bilboko udalaren ekarpena handia izan daiteke Bilbon garrantzitsuak diren hainbat sektoretara heltzeko, harreman sareak antolatzeke, ateak zabaltzeko eta sektore horiek *Euskaraldian* inplikatzeko laguntzeko.



Bilboko udalean zabaltzeko: Udala erakunde inportantea da Bilbon, lanpostu asko dituen eta erreferentziazko pertsona asko dituen barruan, eredu direnak herritarrentzako. *Euskaraldiaren* helburuak (hizkuntza ohiturak aldatzea) udal barruan landu, *Ahobizi* eta *Belarriprestak* ekarri eta herritarrentzako eredu izan. Hori da udalak egin dezakeen hirugarren ekarpen garrantzitsua.

4.2.- Talde eragilea

Talde eragilea da, aurretik aipatu dugun moduan, Bilboko *Euskaraldiaren* koordinazio lan orokorra egiten duena. Orain arte zortzi lagunek osatu dugu lantalde hau, baina beti egon da kide berrien sarrerarako zabalik, eta aurrerantzean ere horrela egongo da. Gainontzeko batzordeetako kide bana dago taldean eta ekimenean inplikatu nahi duten eragile eta euskaltzaleentzako zabalik dago.

Talde honen egiteko nagusia koordinazioa da, baina bertan erabakitzen ari dira Euskaraldiari dagozkion puntu nagusietako batzuk ere: harremanak, plangintzak, kronograma, finantzazioa,...

Aurrerantzean, *Jalgi Fundazioak* koordinatuta arituko da etengabe erabakiak hartzen talde eragile hau.

Talde eragilearen funtzioa izango da era berean, udalarekin jarraipen batzordean parte hartzea.

4.3.- Auzoetako lantaldea

Euskaraldia auzoz-auzo antolatzeko guneak daude dagoeneko (auzo batzuetan lehenagotik daude euskalgintza biltzeko espazioak eta beste batzuetan berriak sortzen ari dira). Batzorde honek auzo ezberdinetako lan-taldeen arteko bilgune modura funtzionatzen du eta koordinaziorako baliatzen da.

Momentu honetan hainbat auzotako kideak biltzen dira koordinazio gune honetan eta auzo bakoitzean ematen ari diren urratsak partekatzen ari dira. Jadanik Bilboko auzo gehienetan ari dira lantaldeak Euskaraldia prestatzen.

4.4.- Sektoreetako lantaldea

Auzoetatik harantzago, gizarteko sektore ezberdinetan lan egiteko aukera ikusten da (hezkuntza, merkatariak, kirola, enpresak, jaiak,...) eta urriaren 30eko aurkezpenean zenbait sektoretan aritzen diren hainbat lagun elkartu ziren. Lehentasunez lantzeko sektoreen identifikazioan ari da lantaldea orain.

Orain arte, bost sektoreetako kideak biltzen dira koordinazio gune honetan. Bakoitzak bere erritmoa du, baina guztiak ari dira eragin nahian.

4.5.- Komunikazioa

Ekimenak Bilbon izango duen komunikazioa landu eta koordinatzen da lantalde honetatik. Lantaldea martxan dago eta Bilbon Euskaraldia zabaltzeko plangintza komunikatiboa egiten ari da, Euskal Herri osoan dagoen komunikazio planarekin bat datorrena.



4.6.- Finantzazioa

Lantaldea eratze bidean da eta momentuz talde eragiletik eramaten ari den arren arlo honen pisua, lantalde moduan antolatzea da asmoa.

4.7.- Dinamizatzailleak

Bilbok duen tamaina eta konplexutasuna kontuan hartuta, behar-beharrezkoa ikusten da dinamizatzaille bik izatea *Euskaraldiko* lantalde guztien eta lan nagusien koordinazioa egiteko ardura. Dinamizatzailleentzat Euskal Herri osoan proposatu diren funtzioak egokitu dira Bilbokoak zehazteko.

Dinamizatzailleak Bilboko *Euskaraldiaren* koordinatzaile nagusiak izango dira. Alde batetik, lantaldeekin maiztasun handiko harremana eduki behar dute, eta *Euskaraldiaren* baitan sortzen diren taldeak kohesionatu beharko dituzte. Hortaz, harremanetarako gaitasuna behar dute, eta kudeaketarako gaitasuna ere bai, lantaldeetan sortuko diren lanak bideratu eta gauzatzeko. Hala ere, dinamizatzailleak ez da bakarrik arituko, lantaldeetako gainontzeko kideekin batera baizik; ekimena eraginkorra izango bada, lan guztiak ez dira beraien gain egongo.

Hauek dira aurreikusten diren funtzio nagusiak:

- Bilboko eragile eta herritarrei ekimena aurkeztu (elkartek, enpresak, norbanakoak...).
- *Euskaraldiaren* bueltan euskaltzaleak saretu.
- Lantaldeak koordinatu.
- Lantaldeekin batera, herriko plangintza zehaztu eta kronograma egin (ekintzak, komunikazioa...).
- Lantaldeetan zehazten diren kudeaketa lanak bideratu (herritarren formazioa, euskaltzale eragileen sarea, ekitaldiak, entitateen urratsak, txapak banatu, dokumentazioa eta bestelakoak).
- Barne eta kanpo komunikazio lanak gauzatu (sustatzaileekin harremana, lantaldeetako kideen arteko harremana, izen-ematea eta datu basea, prentsa oharrak, sare sozialak eta bestelakoak).
- Ekimenaren aurrekontua kudeatu.
- Ekimenaren ebaluazioa egin eta Euskal Herrian egingo den ikerketan lagundu.
- Koordinazio orokorreko mintegi eta bileretan parte hartu, eta Euskal Herriko *Euskaraldiaren* sustatzaileekin koordinatuta egon.

Esan gabe doa, ardura guzti hauek ez dituztela dinamizatzailleek bakarrik beteko, baina lantaldeetako partaideekin lan-ardurak banatuko dituzte langile hauek.

Zergatik bi langile? Dedikazio aldetik honako ardurak banatu beharko lituzkete:

- Batek nagusiki auzoetan egiten ari diren lanketak koordinatu eta beraiei laguntzeko ardura izango luke
- Besteak nagusiki sektoreetan (komertzioak, hezkuntza, jaiak, zerbitzuak,...) egiten den lana koordinatu eta beraiei laguntzeko ardura izango luke



- Bien artean ondoko ardurak partekatuko dituzte:
 - Komunikazioaren ardura (webgunea, materiala, sare sozialak, kartelak, eskuorriak, banaketa,...)
 - Izen-ematearen kontrola eta material banaketa (txapak, ahobizi/belarriprestentzako jarraibide eta aholkuak,...)
 - Formazioa
 - Aurkezpenak eta erakunde harremanak
 - Lantaldeen koordinazioa eta idazkaritza teknikoa
 - Finantzazioa
 - Kontrol ekonomiko-administratiboa (diru-kontuak, fakturak,...)

Lehen langilea apirilaren 16an kontratatua izan da. Bigarren langilea beranduenez ekainaren 1ean kontratatzea izango litzateke egokiena. Biak arituko dira lan-aldi osoan urtea amaitu arte.

5.- Euskaraldia non

Aurreko puntuetan azaldu dugun modura, *Euskaraldia* Bilbo osoan proposatuko da, baina helburua auzo eta sektore guztietara heltzea duela jakinik, modu progresiboan haziko dela aurreikusten dugu. Bilboko edozein herritarrek parte hartzeko proposamen irekia egingo da, beraz, baina arlo eta auzo batzuetan sakonago landu ahal izango dela eta errazago heldu ahal izango dugula ikusten dugu, beraz.

Hurrengo lerroetan gaur egungo argazkia egingo dugu, zein auzotan eta sektoretan ari garen lanean, eta zeintzuetara heldu nahi genukeen lehentasunez.

5.1.- Auzoak

Maiatzaren hasierarako Bilboko auzo gehienetan daude Euskaraldia antolatuko duten lantaldeak martxan. Batzuek jadanik egin dituzte lehen aurkezpen publikoak eta beste batzuk abiatzen ari dira.

Aurreikusten da Maiatza amaierarako egituratuta eta auzoetan aurkezpenak eginda egongo direla lantaldeok.

Hauxe da auzoz-auzoko egoera:

- Otxarkoaga: Sortu berri den *Euskaitz* elkartearen eskutik lanean ari dira jadanik.
- Zorrotza: Auzoko *Euskal Txokoaren* eskutik.
- Santutxu-Txurdinaga: *Euskararen Astea* antolatzen duen lan-taldea ari da *Euskaraldia* prestatzen.
- Deustu: laz *Berbaizu* elkarteak antolatutako *11 egun euskaraz* ekimenari jarraipena emango zaio.
- Miribilla: laz sortu zen *Mirigorri* elkarte, auzoko hainbat elkarte, ikastetxe eta euskaltzalerekin batera, *Euskaraldia* antolatzeko batzordea antolatzen ari da. Apirilean egin zuten lehen aurkezpena.



- Zazpi kaleak: Lantaldea sortuta dago eta lanean ari dira jadanik.
- Bilbo zaharra: Bertako euskara elkartearen eskutik *Euskaraldia* antolatzen hasi dira. Maiatzean egingo dute aurkezpena
- Atxuri: *Euskaraldia* antolatzeko prest daude auzoko hainbat euskaltzale. Oraingoz Guraso Elkartearen bitartez.
- Abusu: Euskara taldea dago bertan. *Euskaraldia* antolatzen hasi dira. Maiatzean egingo dute aurkezpena
- Indautxu: Euskara taldea berpiztu da bertan. *Euskaraldia* antolatzen hasi dira. Maiatzean egingo dute aurkezpena.
- Irala: Euskara taldea berpiztu da bertan. *Euskaraldia* antolatzen hasi dira. Maiatzean egingo dute aurkezpena.
- Errekalde: Euskara taldea berpiztu da bertan. *Euskaraldia* antolatzen hasi dira. Maiatzean egingo dute aurkezpena.

5.2.- Sektoreak

Sektoreka hainbat lagun biltzen ari dira eta momentuz ondokoak hasiak dira antolatzen:

- Hezkuntza arloan ikastetxeetan
- Guraso elkarteak
- Konpartsak
- Euskaltegiak
- Unibertsitateak

Hortik aurrera, ondoko sektoreekin ere lan egiteko asmoa agertu da:

- Mendi taldeak
- Aisialdi taldeak
- Etorri berriak
- Enpresak / merkataritza

5.3.- Bilbo mailakoak

Ohiko sektoreez gain, Bilbon presentzia eta eragin nabarmena duten enpresa eta arloekin lan egitearen interesa azaleratu da. Ondokoak aipatu dira asmoen artean:

- Administrazioa (administratziotako langile eta ordezkariak; Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza)
- Osasun arloa
- Bilboko enpresa erreferentzialak

Edonola, asmoak-asmo, ditugun baliabide pertsonal eta boluntario kopuruaren arabera heldu ahal izango zaie hauetako arlo batzuei, edo ez. Prozesua behar bezala egiteko, lehenbailehen argitzeko gaietako bat izango da zer baliabiderekin kontatuko dugun ekimena burutu ahal izateko, zenbat euskaltzale militante inplikatu diren, batetik, eta zer baliabide ekonomiko beharko ditugu, bestetik.



6.- Nola antolatuko dugu? (kronograma)

2018ko azaroan *Euskaraldia* martxan jartzeko urte osoko lana aurreikusten dugu, asko baita aurrez egin beharrekoa. Euskal Herriko edozein gunetan urte osorako lana aurreikusten bada, pentsa daiteke Bilbo moduko hiri batean, are beharrezkoagoa dela denboraz gaia landu eta lantaldeak indartsu lanean hastea.

Urriaren 30eko aurkezpenean oinarrizko kronograma bat aurkeztu genuen (dokumentu honi erantsia), honen gainean zehazteko urrats guztiak. Bertan markatzen diren mugariak izango dira lantaldeen lan-dinamikaren gidak.

Edonola, ondokoak dira aurreikusitako fase garrantzitsuenak eta fase bakoitzean aurreikusitako lanak:

6.1.- Lantaldeak osatu eta berauen lana abiatzea (2017tik 2018ko otsailera)

Lehen fase hau da orain arte egin den lana. Txosten honen laugarren atalean aipatutako lantaldeak martxan daude jadanik (talde eragilea, auzoetako lantaldea, sektoreetako lantaldea eta komunikazio lantaldea). Lantalde guztiak irekiak dira, hau da, kide gehiagok parte hartzeko interesa balu, lantaldeen dinamikara gehitzeko aukera egongo da.

Lantaldeen lehen lana plangintza izan da, beharrak identifikatzea, lehentasunak jartzea eta urtea planifikatzea. Aurkezten dugun txosten hau da, besteak beste, planifikazio horren emaitzetako bat.

Fase honen eginkizunetako bat izan da Bilboko udalarekiko harremana lantzea ere.

6.2.- *Euskaraldiaren* aurkezpena (otsailetik ekainera)

Euskaraldia Bilboko herritarrei aurkezteko fasea da bigarrena. Lantaldeen bueltan lanean ari diren lagunetatik harantzago, aurkezpen publikoak antolatzeko asmoa dago fase honetan, martxotik aurrera.

Ondoko ekintza zehatzak proposatuko dira:

- Auzoz-auzo aurkezpen publikoak antolatzea: *Euskaraldia* antolatzeko martxan ari diren auzo guztietan aurkezpen bana antolatuko da. Aurkezpen hauetan, Bilboko *Euskaraldiaren* talde eragileko kide batek egingo du azalpen nagusia eta auzo batzuetan orain arte aktibazio ekimenen bat martxan jarri duen herri edo auzoren bateko kideak beraien esperientzia kontatuko du. Aurkezpen hauek kartel, sare sozial eta komunikabideetako agenden bidez iragarriko dira.
- Jardunaldiak: Aurkezpen guztiak bukatutakoan, erdigunean *Euskaraldiaren* inguruko jardunaldia antolatuko da. Horretarako, kanpoko hizlariak ekarriko dira, hizkuntza ohituren aldaketen gainean, *Euskaraldiaren* berri eman eta beste esperientzia batzuk



aurkezteko. Jardunaldiak bi egunetan egingo lirateke Bilboko areto esanguratsuren batean. Hedabideekin landuko da jardunaldietako edukien hedapena.

- Komunikazio kanpaina: Bilbon ere *Euskaraldia* antolatuko dela iragartzeko sare bidezko komunikazio kanpaina egitea proposatuko da. Sorkuntza lana eta produkzioa eskatuko du kanpainak.
- Webgunea: Bilboko *Euskaraldiaren* inguruko informazioa bilduko duen webgunea osatuko da.
- Hamaikakoaren aurkezpena: Euskal Herri mailan “hamaikako” bat aurkeztuko da apirilean, *Euskaraldiari* babesa emango dion taldea. Honen zabalpena proposatuko da Bilbon ere.

6.3.- Euskaltzale eragileen sarea osatzea (apiriletik abuztura)

Ahoz-ahoz zabalduko da udazkenean *Euskaraldiaren* izen-ematea, nagusiki. Komunikazio kanpaina batek osatuko du lan hau, baina oso garrantzitsua izango da euskaltzale sare aktibo bat prest izatea *Euskaraldiaren* berri eman, 11 egunetan parte hartzeko proposamena egin eta izen-ematean laguntzeko. Udaberria eta uda izango dira sare hori antolatzeko garai garrantzitsuak. Horregatik, hirugarren fase hau sarea antolatzera bideratuko da nagusiki.

Ondoko ekintzak aurreikusi dira garai honetarako:

- Euskaltzale aktiboak bilatzea. Informazioa zabaltzeko euskarriak sortu (eskuorriak, gomendio zerrendak,...) eta auzoz-auzo kolaboratzaile sareak antolatzeari ekingo zaio. Lehen datu base bat osatuko da horrela eta pertsona horiek prestatuko dira, ondoren beraiek *ahobizi* eta *belarriprestak* bilatzeko.
- Formazio saioak: Euskaltzale sare hauentzako formazio saioa prestatuko da. Euskaltzale konprometituak izango dira eta formatu ezberdineko formazioak aurreikusi behar dira, bakoitzaren aukera eta interesen arabera: formazio sakonagoak jasotzeko prest egongo dira batzuk (*TELP* edo *Eusliderrak*, esate baterako) eta saio arinagoak beste batzuk. Kasu honetan saio sakon bat eskainiko da (6 ordukoa), ekimenaren zabalkundearen ari diren batzordeetako kideentzat. Saio honen helburua izango da boluntarioei baliabideak ematea izen-ematean laguntzeko prest egon daitezkeen. Udazkenean, izen-emate garaian, beste prestakuntza eskaintza bat egongo da.
- *Euskaraldia* ezagutarazteko ekintza publikoak. Uda garaia egokia da ekintza bereziak egiteko (jaiak tarteko). Ekintza hauen helburua izango da *Euskaraldia* datorrela iragarri eta froga batzuk egitea (*ahobizi* eta *belarriprest* figuren gainean pedagogia lana egin eta froga laburrak egitea proposatuko da auzoetako jaietan edo Bilboko Aste Nagusian, adibidez).
- Auzoetako ekimenak: Auzo batzuetan euskaraz aritzea posible den komertzioen mapa egitea erabakita dute. *Euskaraldirako* oso baliagarria izango den lana da, *ahobizi* eta *belarriprestak* zer zerbitzutan aurkitu ahal izango diren identifikatzeko balioko du eta. Bestelako ekimenak ere egon daitezke auzoz-auzo edo sektore zehatzetan (hezkuntzan, adibidez).

6.4.- Izen-ematea (irailtik azarora)



Izen ematea iraila eta azaroa artean egingo da Euskal Herri osoan. Garai horretan proposatuko zaie herritarrei azaroaren 23tik abenduaren 3rarteko 11 egunetan *ahobizi* edo *belarriprest* izatea. Herritar bakoitzak erabakiko du *ahobizi* izan nahi duen edo *belarriprest*, eta izena emandakoan, ikur bat (txapa bat) jasoko du egun horietan beti ikusteko moduan izateko.

Izen ematea Euskal Herri osoan modu bateratuan egiteaz gain, datu base orokor batean sartuko dira datuak. Bilboko datuak beraz, datu base orokorrean izango dira, baina Bilboko *Euskaraldiaren* antolatzaileek aukera izango dugu Bilboko datuak ikusi eta kudeatzeko.

Hauek dira hilabete horietarako aurreikusitako ekintzak:

- Izen-emate euskarri fisikoak inprimatu eta zabaltzea: Izen-ematea webgunean egin ahal izango da, baina baita papereko euskarrietan ere. Horiek batu eta datu-baseratzeaz arduratuko dira Bilboko *Euskaraldiko* dinamizatzaileak.
- Ahoz-ahoko lan planifikatua: Udaberrian osatutako boluntario sareei emango zaie partaideak lortzeko ardura. Ahoz-aho zabaltzea izango da helburua eta ahalik eta jende gehienarengana heltzea.
- Aurkezpenak antolatzea: Martxo-apirilean egin bezala, *Euskaraldiaren* aurkezpenak egingo dira berriro ere auzoz-auzo.
- Izena emateko mahaiak jartzea kalean: Egun zehatzetan, kalean mahaiak jarriko dira informazioa eman eta izen-emateak egin ahal izateko.
- Komunikazio kanpaina. Bigarren komunikazio kanpaina bat egingo da, izen-ematea indartzeko eta Bilbon zein lekutan egin daitezkeen izen-emateak iragartzeko.
- Bilboko izen-ematea iragartzeko prentsaurrekoa: urrian zehar prentsaurrekoa antolatuko da Bilbon izena non egin daitekeen iragarri eta Bilbotarrak parte hartzera animatzeko.
- Txapa eta gomendio banaketak. Izena ematen duten lagun guztiei banatuko zaizkie txapak (batzuei *ahobizi* eta besteei *belarriprest* ikurrak) eta horrekin batera, 11 egunetan beren rolari eusteko gomendio zerrenda banatuko zaie.
- Prestakuntza saioak: hainbat prestakuntza saio eskainiko dira izena eman duten lagun guztiei baliabideak eta gomendioak emateko. Zortzi tailer sakon eskainiko dira (4 ordukoak), prestakuntza nahi duten guztientzako. Hortaz gain, ahobizi eta belarriprestentzako saio arinagoak ere eskainiko dira, eskaeraren arabera. Azken hauek ordu eta erdiko saioak izango dira, batzuk *belarriprestei* zuzendutakoak eta besteak *ahobiziei* zuzendutakoak. Saio hauen helburua izango da partaideek hamaika egunetan nola jokatu dezaketen azaldu eta jarrerari eusteko tresnak eskaintzea.

6.5.- 11 egun euskaraz (azaroaren 23tik abenduaren 3ra)

11 egun hauetan egingo da *Euskaraldiak* proposatzen duen ariketa. Hizkuntza ohituretan eragin nahi da, eta nagusiki, bakoitzaren hurbileko eremuetan gauzatuko da aldaketa hori. Horretarako partaide bakoitzari proposatuko zaio hizkuntza ohiturak aldatzeko helburu zehatzak jartzeko. Horrela, bakoitzak bere “hamaikakoa” osatu beharko du (zein hamaika lagunekin egin nahi duen hizkuntza ohitura aldatzeko ariketa). “Hamaikakoa” osatzeko



irizpide batzuk jarriko dira: familiako, lagunarteko, laneko, kaleko eta zerbitzuetako (erosten den ohiko dendatako) hamaika lagun aukeratzea proposatuko zaie.

Hamaika egunotan beraz, batez ere partaideen ohiko harreman sareetan eragitea izango da helburua, baina hala ere, eremu pribatuan geratzen diren ekintza horiek bisibilizatzeko hainbat ekitaldi proposatuko dira. Oraindik irudikatu gabe dauden arren, hauek dira proposamenetako batzuk:

- Hasierako argazkia: Azaroaren 22 edo 23an auzoz-auzo ahobizi eta belarripresten argazki erraldoia egitea proposatu daiteke.
- *Ahobizi* eta *belarripresten* arteko topaketak: Bizipenak trukatzeko hitzorduak jarriko dira hamaika egunetan zehar.
- Bizipenak jasotzeko euskarriak: Webgunean zein euskarri fisikoetan egun hauetako bizipenak jasotzeko modua proposatuko da, eta bizipen horiek sare sozialen bidez zabaldu.
- Auzoetako ekitaldiak: Auzoz-auzo ekitaldi bereziak antolatu ahal izango dira.
- Sektoreka ekitaldiak: Sektoreek ere ekitaldi bereziak antolatu ahal izango dituzte, beraien eremuan ematen ari diren aldaketak bisualizatzeko.
- Bukaerako ekitaldia: Abenduaren 3an ekitaldi batekin (edo auzokako ekitaldiekin) amaituko da *Euskaraldia*.

6.6.- Balorazioa eta ikerketa

Euskal Herri mailako ikerketa proposatuko da eta lagin bidez egingo denez, ez dakigu oraindik Bilbo egongo ote den aztergaien artean. Horren arabera erabakiko da balorazio bereziren bat egitea eta nola egin.

7.- Jarduerak

Bilbon Euskaraldia antolatzeko orduan, ondoko ekintza zehatzak aurreikusi dira orain arte:

Auzoetako aurkezpenak

Hainbat hitzaldi eta batzar ireki antolatzen ari dira auzoetan, Euskaraldia zer den azaldu eta auzoetako lantaldeak osatzeko. Aurkezpen hautako batzuetan, aurretik egon diren aktibazio esperientzien berri emateko beste herri batzuetako euskaltzaleek parte hartu dute. Deustun iaz egindako “11 egun euskaraz” ekimenaren berri eman dute Berbaizu euskara elkarteko kideek zenbait aurkezpenetan.

Bilboko aurkezpena eta Euskaraldia ezaugarrazteko kanpaina

Maiatzaren 24rako aurreikusi da Bilboko Euskaraldiaren lehen aurkezpen handia. Aurkezpen honetan auzo eta sektore ezberdinetan lanean ari diren euskaltzaleek Euskaraldian parte hartuko duten beste herritar eta eragileekin agerraldi bat egingo dute, Bilbok ere Euskaraldiarekin bat egingo duela zabalatzeko.



Aurkezpen ekitaldiarekin batera, Bilboko hiritarrei Euskaraldia zer den azaldu eta parte hartzera animatzeko kanpaina egingo da. Bi euskarri aurreikusi dira maiatza eta ekaina artean abiatuko den kanpainarako:

- Euskaraldia aurkezteko eskuorriak sortuko dira, Bilbo osoko auzoetan zabaltzeko.
- Spot bat ere sortuko da, ahobizi eta belarriprest izango diren herritarrak protagonista izango dituen spota.
- Hedabideetan Euskaraldiaren berri zabalduko da.

Jardunaldia

Ekainaren 7an jardunaldia egingo da Euskaraldiaren oinarri teorikoetatik abiatuz, ekimenaren protagonista izango diren ahobizi eta belarriprest roletan sakontzeko. Bi hitzaldi izango ditugu jardunaldian: batetik, hizkuntza portaera aktiboetan asertibitatea nola landu aztertuko da. Bestetik, ulermenak hizkuntza praktika berriak bultzatzeko duen garrantzia aztertuko da beste hitzaldi batean.

Jardunaldi honetan bi gai hauetan adituak diren eta ibilbide akademiko garrantzitsua egin duten bi hizlari ekarriko dira.

Prestakuntza

Euskaraldia ekimenean herritarren hizkuntza-ohiturak aldatzea dugu xede. Horretarako, ariketa sozial praktiko eta kolektiboa egingo dute izena ematen duten *ahobizi* eta *belarriprest* guztiek. *Ahobizi* direnek euskaraz egingo diete ulertzen duten kide guztiei, 11 egunez, aurrez aurre zein telefono, email edo sare sozialen bidez. *Belarriprest* direnek, berriz, beraiekin euskaraz aritzeko gonbidapena egingo diete gainontzeko kideei. Kontua ez da euskararen alde egotea edo euskara jakitea / ulertzea, ariketa gauzatzeko prest egotea baizik.

Ariketa honek ez-ohiko egoerak sortuko ditu, tarteka deserosoak ere izan daitezkeenak (elkarrizketa elebidunak, beti erdaraz ezagututako gertuko kidearekin euskaraz egitea, eta abar). Horregatik, azaroaren 23a baino lehen herritarrak prestatzea funtsezkoa izango da, gertatuko diren kasu horietan nola jokatu jakin dezaten. Tresnak emateko, bi bide nagusi landuko ditugu: aholkuak zabaldu, komunikazio euskarrien bidez, eta tailerrak eskaini.

Beraz, Euskaraldian prestakuntza eskaintza zabala antolatu da ondoko helburuarekin: *ahobizi*, *belarriprest* eta euskaraz ulertzen ez duten euskaltzaleak (ekimenean zuzenean parte hartuko ez dutenak), eta Euskaraldia gauzatu duten batzordeetako kideak ahaldundu eta trebatzeko saioak lantzea, herrietako batzordeek eskaintza argia eta gauzagarria izan dezaten eskura.



Bilbon, eskaintza honi heldu eta hainbat prestakuntza saio antolatzea proposatu dugu. Oso garrantzitsua da hau, Euskaraldia ariketa baita eta ariketa modura landu behar delako, ez kanpaina baten gisara.

Bi prestakuntza eskaintza mota lantzen ari dira:

- Borondatezko herritarren bidez zabalduko dira ordu eta erdiko tailer *arinak*.
- Lau eta sei ordu bitarteko tailer *sakonak*, adituek eskainiko dituztenak.

Hiztun eta testuinguru mota oso desberdinak dauzkagu Euskal Herrian eta ahalik eta gehienengana modu efektiboan iristeko ondorengo prestakuntza eskaintza proposatuko dugu Euskaraldirako: ahobizi, belarriprest eta euskaraz ulertzen ez duten euskaltzaleentzako saio arinak eta saio sakonagoak. Saio arinak herrietako batzorde eta euskaltzale eragileei proposatuko dizkiegu Euskaraldiko koordinaziotik, eta saio sakonagoei Euskaraldiko prestakuntza taldeko kide diren aholkularitza enpresek helduko diete.

Funtzio desberdinak dituzte tailerrek.

- **Saio arinak**

- Ahalik eta herritar gehien prestatzea, praktika berrietan eroso senti daitezen. Batez ere, euskalgintzan eta Euskaraldia batzordeetan murgilduta ez dauden herritarrentzako izango dira tailerrak egokiak.
- Borondatezko herritarren sarea trinkotzea, komunitatearen lanaren bidez, eta pertsona horiek eduki eta diskurtsoetan janztea.

- **Saio sakonak**

- Prestakuntza espezializatuagoa eskaintzea hala nahi eta behar duten herritarrei. Batez ere, euskalgintzan ari direnak, erreferente direnak, batzordeetako kideak eta abar izan daitezke interes multzoak.

Bilborako ondoko proposamena egin da:

* Sei orduko iraupena duen tailer bat: Saio hau antolaketa taldeetan ari diren kideei zuzenduta egongo da. Ahobizi/belarriprest gisa aritzeko argibideak aletzeaz gain, ekimena zabaldu eta partaideak erakartzeko estrategiak eskaini nahi dira eta garrantzitsua iruditzen zaigu 15-20 lagun ondo prestatuak izatea.

* Lau orduko iraupena izango duten 8 tailer: Honen helburua da Bilboko barruti guztietan formazioa eskaintzea interesa duten herritarrentzako. Tailer honetara bere burua prestatzeko interesa eta gogoia duten lagunak erakarriko genituzke. Guztira 100 lagunetik gora ondo prestatuak izatea da helburua.

* Hortaz gain, antolaketa taldeko zenbait kide formatuko lirateke, ordu eta erdiko tailer laburrak gidatu ahal izateko.



Bilboko Aste Nagusia

Bilboko Konpartsak ekimenera batzeko eta Aste Nagusian lehen froga piloto bat egiteko aurre-lanketa egiten ari da. Helburua: jai giroa aprobetxatu euskarazko praktika linguistikoak bultzatzeko eta Euskaraldia ezagutarazteko.

Izen-ematea

- Izen ematea abiatzeko aurkezpen publikoa
- Auzoz-auzo eskuorriak (eskuorritan jasotzen direnak datu base orokorrera pasa behar direla, lana aurreikusi)
- On-line izen-ematea
- Leku fisikoak izena eman eta txapen banaketarako

Euskaraldiaren fase garrantzitsua da Izen-ematea. Irailaren 20an zabalduko da, eta dinamikan parte hartu nahi duen jende ororen datuak bilduko dira (Izen-abizenak + eposta/telefonoa). Ezinbesteko izango da Euskaraldiaren 11 egunetan zehar txapa lortu eta dinamikan parte hartzeko. Horretarako, auzoetako batzordeek hainbat bitarteko erabiliko dituzte. Auzoz-auzo eskuorriak banatuko dira (eskuorritan jasotzen direnak datu base orokorrera pasa behar direla, lana aurreikusi behar da), Izen-ematearen markarekin egingo diren ekitaldi eta aktibazio ekimenak, leku fisiko edo lokalak izena eman eta txapen banaketarako...

Fase guzti honi hasiera emateko, Bilboko aurkezpen publiko bat egingo da, Irailaren 22an. Auzoetako batzordeek deituta, zutabeak egingo dira Moyua plazan elkartzeko. Horrela uztartuko ditugu, auzoetan partehartzen ari den jendea eta Bilboko ideia orokorra. Ekitaldi horrek behar bereziak sortuko ditu (propaganda, hizlariak, ikus-entzunezko grabaketa eta baliabideak...).

11 egunetako ekitaldiak

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra aktibitate askoko egunak izango dira auzoetan. Auzoko batzordeek antolatuta, ekimenak egingo dira, Deustun 2017an egin zen bezala.

- Belarriprest/ahobizi topaketak
- Ekitaldi kulturalak
- Dinamika ikusarazteko propaganda baliabideak
- ...

11 egun euskaraz partehartzaileez haratago komunikatu behar da, eta egun horietan zehar gertatzen dena ondo dokumentatu eta gorde (bideoak, testuak, argazkiak...). Horrez gain, auzoetatik jaso dugun eskaria da Bilbo mailako ekimen garrantzitsu bat antolatzea Euskararen egunean bertan (abenduak 3), tokia eta formatua irekita dago oraindik.



8.- Aurrekontua

Aurrekontua	Gastuak
Langileak	39.100,00 €
Formazioa eta jardunaldiak	9.200,00 €
Inprenta (kartel, eskuorri, rol-up, pegatak, panpinak,...)	13.500,00 €
Diseinua eta bideoak	7.000,00 €
Txapak	2.800,00 €
Ekitaldiak	8.000,00 €
Hedabideetan publizitatea	10.000,00 €
Funtzionamendua	3,000.00 €
Guztira	92.600,00 €